


### 3 FASEA (ekainaren 8tik aurrera)

#### Elkarte gastronomikoak eta txokoak irekitzeko baldintzak:



Mahaien edota mahai-taldean artean, gitxienez, 2 metroko tartea mantentzen dala bermatu beharko da.

Mahai edota mahai-talde bakoitza, jarri daitezkezan persona kopuruaren arabera egokitutakoa izan beharko da, beti be, pertsonen arteko gitxienezko segurtasun distantzia mantentzea bermatuz.

#### Babes eta higiene neurriak:



Lokal guztia garbitu eta desinfektatu jarduera hasi aurretik eta zerbitzu bakoitzaren amaieran; bereziki aulki, mahai eta bestelako kontakturako gainazalak.



Erabiltzaileen eskura jarri beharko dira hidrogel edota desinfektante banagailuak.



Zerbitzu- baliabideak(plater eta bestelakoak, kristaleria, mahai-tresnak, mantelak, etab.) itxitako guneeetan gordeko dira. Hori posible ez dan kasuetan, erabiltzaileak dabilzan guneeetatik aparte gordeko dira.



Autozerbitzurako produktuak (musuzapi-banagailuak, zotz-ontziak, ozpin eta olio-botilak...) kendu egingo dira eta erabilera bakarreko formatuak hobetsiko dira. Posible ez dan kasuetan erabiltzaileak behar dauan kasuetan soilik erabiltzeko zerbitzuak eskainiko dira.



Komunen gehienezko okupazioa persona bakarrekoa izango da, salbu laguntza behar daben erabiltzaileen kasuetan. Komunen garbiketa neurriak zorrotzu eta komunen garbitasunaren maiztasuna handitu.